

Mazoka, gero eta indartsuago, bere hirugarren edizioan

40 mazokalarien erakusketez gain, berrikuntzak izango dira aurtengoan, hala nola mikroantzerkia eta errealitate birtualezko marrazkia

- **Familientzako eta ilustrazioaren alorreko profesionalentzako lantegiak, musika, zuzenean egindako erretratuak eta Dibutekako bi gunek osatuko dute jardueren programa.**

Mazoka Marrazki Azokaren III. edizioa (Marrazki eta Ilustrazioaren Gasteizko Azoka) Montehermoso kulturuneko **ur-biltegi** ohian egingo da **abenduaren 15etik 17ra bitartean**, eta inoiz baino jarduera paralelo gehiagorekin etorriko da aurtun, **40 mazokalari** hautatuen erakusketak osatzeko. Ostiraletik igandera bitartean Mazokara hurbiltzen diren bisitariek, lan jatorrizkoak eta egile-produktuak erostez gain, **jarduera, lantegi eta ikuskizun osagarrien egitarau** zabal bat gozatu ahalko dute.

Berrikuntza nabarmenenen artean, aurtengo Mazokan **mikroantzerkia eta dantza** izango da, Nui Danza taldearen *Bikoteka* ikuskizunaren eskutik. Nui Danza kolektibo gasteiztarra da, eta mugimendua erabiltzen du ikur eszeniko nagusi gisa. 15 minutuko lau saio eskainiko ditu, zeinetan keinu-antzerkia, dantza, umorea eta poesia uztartuko dituen. Beste dantza ikuskizun bat izango da aurtengoan, *Traspasoswing* izenekoa, zeinak Mazoka hurbiltzen den jendea animatuko duen, batez ere Lindy Hoparen bitartez, baina baita **#mazoka2017** izenpean propio sortu duten koreografia bereziaren bitartez ere.

Egitarauaren beste berrikuntza bat Catsula izango da, egoitza Gasteizen duen ikus-entzunezkoen ekoiztetxe independentea, animazioan eta transmedia edukien sorkuntzan espezializatua. Nazioarteko zenbait telebista-serientzako storybordak eta animazioa egiten dute, baina baita edukiak azken belaunaldiko bitarteko eta gailu guztietarako. Errealitate Birtualeko instalazio bat paratuko dute, nahi duen orok probatzerik izan dezan zer den **errealitate birtualezko inguruan marraztea**.

Aurtengoan **familientzako bi ilustrazio-lantegi** eskainiko ditu Mazokak, eta biak Tralarí argitaletxearen eskutik: batetik, *El tótem más alto del mundo*, non eraikin bertikal horietako bat sortuko den kartoizko kutxak eta koloretako papera baliatuz, eta bestetik *El Historiómetro*, oihaneko animalien abentura harrigarrien berri izateko aukera bat.

Horiez gain, beste lantegibat ere egingo da, baina **berariaz marrazkilari eta ilustratzaileei zuzendua**, José Antonio Barrionuevoren eskutik (ilustrazioari buruzko *Un Periodista en el Bolsillo*, blog nazional onenaren saria 2012an, kultura eta joeren atalean). *Un altavoz para tu ilustración* izenpean, partaideei beren lanaren on-line hedapena hobetzen lagunduko die.

Aurreko edizioetan ere izan du protagonismorik **musikak**; aurtengoan, 3 talde izango dira Mazokan: Los Misterios -surf eta rock&roll instrumentaleko talde gasteiztarra-; Libe -rock

talde gasteiztarra, zeinak kontzertu akustiko txiki baina itzel bat eskainiko duen euskaraz-; eta Kubers -pop-rock alternatiboko talde arabarrak *Horizontal* azken diskoa aurkeztuko du, formatu elektro-akustikoan-.

Mazoka osatzen amaitzeko, zuzeneko erretratuak izango ditugu (**Ilustramatón**), baita **Dibuteka** (bi gune, non handi eta txikiek marraztean hasi daitezkeen, inguratzen dituztenean inspirazio hartuta) eta Selva Mazoka Oihana izeneko **photocalla** ere.

Joan den urriaren 25ean ezagutarazi genituenaurtengo ediziorako hautatutako 40 **mazokalarien** izen eta portfolio artistikoak. Ilustratzaileok zuzenean eta jendaurrean jorratuko dute beren sormen-gaitasuna, eta beren postuetan lan bakarrak eta erreproduzioak aurkitu ahal izango ditugu, baita ere papergintza, ehungintza, zeramika, egurra, serigrafia, litografia, autoedizioa, 3D, dekorazioa, osagarriak, jolasak, artisautza eta abarretara aplikatutako ilustrazioa ere.

“Bi edizio baino ez aurretik, eta Mazoka erreferentzia bihurtu da marrazkiaren eta ilustrazioaren alorrean, baita Gasteiztik kanpo ere. Ekimenaren berezko balore kulturalaz eta beste leku batzuetan interesa pizteko ahalmenaz gain, Mazokak sormen- eta kultura-industriek tokiko garapenaren motor gisa gure hirian duten garrantzia islatzen du”, adierazi du Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren zinegotzi **Nerea Melgosak**, Mazokaren hirugarren edizioko egitaraua aurkeztuan, lagun zituela **Marta C. Dehesa**, **Anuska Arbildi** eta **Yolanda Mosquera**, Ilustrapados en Araba kolektiboko kideak eta Mazokaren zuzendaritza- eta komunikazio-arduradunak.

Aurtengo kartela eta ikus-identitatea **Yolanda Mosqueraren** eskutik datorkigu; ilustratzaile arabarra da, sari asko irabazia eta ospe handikoa.

Mazoka Gasteizko Udalak sustatzen duen ekimena da, sormen- eta kultura-industriak sustengatzeko strategiaren barruan. Helburu hori bera guztiz presente izan da Angulemako hiriarekiko senidetzearen 50. urteurrena ospatzeko urtean zehar egin diren jardueretan.

Mazoka crece en su tercera edición con más talleres y actividades complementarias

- A la muestra expositiva de 40 Mazokalaris se incorporan novedades como el microteatro y el dibujo en un entorno de realidad virtual

Talleres familiares y para profesionales de la ilustración, música, retratos en directo y dos espacios de Dibuteka completan el programa de actividades

La III edición de **Mazoka Marrazki Azoka**, el festival del dibujo y la ilustración de Vitoria-Gasteiz que se llevará a cabo **del 15 al 17 de diciembre** en el Antiguo **Depósito de Aguas** del Centro Cultural Montehermoso, llega con más actividades paralelas que animarán la muestra expositiva de las y los **40 Mazokalaris** seleccionados. Además de optar a la compra de originales y productos de autor, las personas que asistan a Mazoka podrán disfrutar de un **completo programa de actividades, talleres y espectáculos** complementarios, de viernes a domingo.

Entre las novedades más destacables, Mazoka incorpora este año **microteatro y danza** con el espectáculo BIKOTEKA a cargo de Nui Danza, colectivo gasteiztarra que utiliza el movimiento como principal signo escénico. Realizará cuatro pases de 15 minutos cada uno donde se mezclan teatro gestual, danza, humor y poesía. Siguiendo con la danza, otra novedad viene de la mano de TRASPASOSWING, que animará la cita a ritmo de, sobre todo, el Lindy Hop y la **coreografía especial #mazoka2017**.

Otra nueva incorporación al programa de este evento cultural en torno a la imagen gráfica es la de CATSULA, una productora audiovisual independiente, con sede en Vitoria-Gasteiz, especializada en animación y en la creación de contenido transmedia. Sus trabajos abarcan desde la creación de storyboards y animación para series de TV de ámbito internacional hasta la creación de contenidos para todos los nuevos canales y dispositivos de última generación. Montarán una instalación VR para que el que quiera pueda probar la experiencia de **dibujar en un entorno de realidad virtual**.

La oferta de talleres de ilustración de Mazoka se diversifica este año con **dos talleres familiares impartidos** por Ediciones Tralarí: “*El tótem más alto del mundo*”, donde se creará una de estas construcciones verticales mediante papel de colores y cajas de cartón, y “*El Historiómetro*”, donde descubrir las sorprendentes aventuras que viven los animales de la selva.

A los talleres familiares se suma otro **específico para dibujantes e ilustradoras** con José Antonio Barrionuevo, responsable de la web sobre ilustración Un Periodista en el Bolsillo, mejor blog de cultura y tendencias 2012 a nivel nacional. Bajo el título “*Un altavoz para tu ilustración*”, las y los participantes conocerán cómo mejorar la difusión on-line de su trabajo.

La **música**, que ya ha tenido protagonismo en anteriores ediciones de Mazoka, llegará este año de la mano de Los Misterios -banda vitoriana de surf y rock&roll instrumental-, Libe - rock talde gasteiztarra que ofrecerá un pequeño gran concierto acústico en euskera- y Kubers - grupo alavés de pop-rock alternativo que presentará su último disco “Horizontal”, en formato electro acústico-.

Para completar Mazoka, no faltarán alicientes como los retratos en directo mediante el **Ilustramatón**, la **Dibuteka** (dos zonas en las que peques y grandes podrán animarse a pintar inspirándose en el entorno) o el **photocall** “Selva Mazoka Oihana”.

Los 40 **Mazokalaris** seleccionados este año, y cuyo nombre y portfolio artístico ya se dio a conocer el pasado 25 de octubre, darán rienda a la creatividad en directo y atenderán personalmente sus paradas donde podremos encontrar desde obras únicas a reproducciones o aplicaciones en diferentes formatos: papelería, textil, cerámica, madera, serigrafía, litografía, autoedición, 3D, decoración, complementos, juegos, artesanía, etc.

“Con solo dos ediciones, Mazoka se ha convertido en toda una referencia en el ámbito del dibujo y la ilustración más allá de Vitoria-Gasteiz. Además del valor cultural de esta iniciativa y su capacidad para atraer el interés de otros territorios, es la demostración del gran potencial que en nuestra ciudad tienen las industrias creativas y culturales como motor de desarrollo local”, ha señalado la concejala de Empleo y Desarrollo Económico Sostenible, **Nerea Melgosa**, que ha presentado el programa de la tercera edición de Mazoka junto a **Marta C. Dehesa**, **Anuska Arbildi** y **Yolanda Mosquera**, miembros de Ilustrapados en Araba, encargadas de la dirección y comunicación de Mazoka.

La identidad visual inspirada en el cartel de este año, realizado por una reconocida ilustradora, muy premiada y de gran prestigio que además es alavesa: **Yolanda Mosquera**, que estamos cuidando con mimo y hasta el detalle desde la organización.

Mazoka es una iniciativa apoyada por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz dentro su estrategia de fomento de las industrias creativas y culturales. Este mismo objetivo ha estado muy presente a lo largo de todo el año en las diferentes actividades de conmemoración del 50 aniversario del hermanamiento con la localidad de Angulema.